# Arabako Foru Aldundiaren 2026ko aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren memoria.

***2026ko urtarrila***

## 1. Sarrera

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren ekimenez, Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2025eko ekainaren 3an, 304/2025 Erabakia dela bide, ondokoa onetsi zuen: «Arabako lurralde historikoko partaidetzako aurrekontuak egiteko partaidetza ereduaren gida praktikoa» izenekoa.

Aurreko hiru partaidetzazko prozesuetan eskuratu den esperientzian oinarrituta egin da gida, aldian-aldian deitzen diren prozesuetarako baliagarri izango den prozesuaren alderdirik garrantzitsuenak dokumentu bakarrean biltzeko helburuz, hori guztia herritarren parte hartzea sustatu eta errazte aldera.

Era berean, Arabako Foru Aldundiak, ekainaren 4ko 60/2025 Foru Agindua dela bide, Arabako 2026ko Aurrekontu Parte hartzaileen partaidetza prozesuaren deialdia egin zuen, Arabako Lurralde Historikoaren eta kuadrillen beharrak eta lehentasunak ezartzerakoan arabar guztiek zuzenean parte har dezaten.

Honako memoria honetan, 2026ko aurrekontu parte hartzaileen proiektuak abian jartzeko xedez 2025. urtean gauzatu ziren ekintza guztiak jaso dira.

Hala, aurrekontu parte hartzaileak edo partaidetzazkoak demokrazia parte hartzaileari, zuzenari eta deliberaziozkoari atxikitako tresnak dira, eta, horien bidez, herritarrek politika publikoen diseinuan, erabakian, betearazpenean eta jarraipenean parte hartzeko eskubidea erabil dezakete. Parte hartzaileek proiektuak aurkezten dituzte eta, herri bozketa erabiliz, administrazioak gauzatuko dituen proposamenak hautatzen dira.

Aurrekontu parte hartzaileen prozedura Araba Irekian argitaratuta dago:
https://irekia.araba.eus/eu/aurrekontu-partehartzaileak

## 2. Aurrekontua

**Hautatu diren proiektuak:egikaritzeko guztizko aurrekontua: 934.612 €**

1. KATEGORIAN hautatu diren proiektuak egikaritzeko hasierako aurrekontua (% 35) 327.114,20 €

2. KATEGORIAN hautatu diren proiektuak egikaritzeko hasierako aurrekontua (% 65) 607.497,80 €

## 3. Prozesua

**2. FASEA. Herritarren proposamenak jasotzea**

**Epea: 2025eko ekainaren 5etik uztailaren 6ra (2025eko uztailaren 24ra arte luzatu zen)**

**2025eko ekainaren 5eko komunikazioa:**

https://prentsa.araba.eus/es/-/presentacion-de-los-nuevos-presupuestos-participativos?p_l_back_url=%2Fes%2Fsearch%3Fq%3Dparticipativos%26delta%3D20%26start%3D2&p_l_back_url_title=B%C3%BAsqueda

(euskaraz)
https://prentsa.araba.eus/eu/-/presentacion-de-los-nuevos-presupuestos-participativos?p_l_back_url=/es/search?q=participativos&delta=20&start=2

https://prentsa.araba.eus/es/-/la-diputacion-foral-presenta-la-nueva-edicion-de-los-presupuestos-participativos-con-novedades-para-reforzar-la-equidad-y-la-participacion?p_l_back_url=%2Fes%2Fsearch%3Fq%3Dparticipativos%26delta%3D20%26start%3D2&p_l_back_url_title=B%C3%BAsqueda

(euskaraz)
https://prentsa.araba.eus/eu/-/la-diputacion-foral-presenta-la-nueva-edicion-de-los-presupuestos-participativos-con-novedades-para-reforzar-la-equidad-y-la-participacion?p_l_back_url=/es/search?q=participativos&delta=20&start=2

**2025eko uztailaen 28ko komunikazioa:**

https://prentsa.araba.eus/es/-/alava-recibe-20-propuestas-ciudadanas-en-la-primera-fase-de-los-presupuestos-participativos-2026?p_l_back_url=%2Fes%2Fsearch%3Fq%3Dparticipativos%26delta%3D20%26start%3D2&p_l_back_url_title=B%C3%BAsqueda

(euskaraz)
https://prentsa.araba.eus/eu/-/alava-recibe-20-propuestas-ciudadanas-en-la-primera-fase-de-los-presupuestos-participativos-2026?p_l_back_url=/es/search?q=participativos&delta=20&start=2

**Jasotako proposamenak**

**1. KATEGORIA:**

| KUADRILLA | UDALERRIA | KAT. | PROIEKTUA | HELBURUA | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|
| ARABAKO LAUTADA | ALEGRÍA-DULANTZI | 1 | **Oinezkoentzako pasabidea A-3140 errepidearen gainean, Erromatarren bidean (Done Jakue bidea, Dulantzin).** | Done Jakue bideari jarraipena ematea, bidegurutze oso arriskutsua saihesteko | Lotunea egitea Erromatarren bidean oinezkoen pasabide bat eraikiz, A-3140 errepidea gainetik zeharkatzeko hiriz kanpokoa den eremu batean.<br>Egungo bidegurutzea oso arriskutsua da, bertan dagoen trafikoagatik eta bidean joan daitekeen abiaduragatik. Errepidean baimenduta dagoen gehieneko abiadura 90 km/h-koa da. Hala berean, errepide hori dugu Alegría-Dulantziko industrialdeetarako sarbidea eta A-1 errepidera eta Laminoriako harrobitik. Aipaturiko tartea Donejakue bidearen zatia da, eta oso gune kritikoa da inguru horretan. Trazadura hori Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Bide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren barruan dago, honela: IV18 ibilbidea – Erromesen bidea. Donejakue bidea. (katalogatzeke) |
| AIARALDEA | AIARA (Luiaondo) | 1 | **Luiaondoko frontoiaren estalkia aldatzea eta eguzki plakak jartzea** | **Egungo estalkia aldatzea** | Luiaondoko frontoia duela 30 urte baino gehiago eraiki zen eta azken urteetan itogin ugari izan ohi ditu. Pilotaleku hori erreferentziazkoa da, Luiaondoko herritarrentzat ez ezik, Aiarako udaleko kirolari guztientzat eta Aiaraldeko pilota eta fronteniseko kirolarientzat ere. Estalkiaren azalera kontuan hartuta, eremu horretan dauden eraikin publikoak (gizarte etxea, administrazio batzarraren lokala, kultura erabilerako lokalak, gaztelekua...) hornitzeko eguzki plakak jar daitezke. |
| GORBEIALDEA | LEGUTIO | 1 | **Legutioko udalerriaren ekialdeko erronda bidea urbanizatzea** | **Legutioko erreferentziazko espazio publikoari jarraipena ematea: Ortiz de Zarate doktorearen eta Batasunaren plazei, eta eremu hori frontoiaren** | Bi gune horiek komunikatzeko beharraz gain, interes handia dago ekialderantz dauden ikuspegi zoragarriak, hala nola inguruko mendiak (Jarindo, Albertia...) eta Albina urtegitik behera izen bera daukan ibaiaren bokalean sortzen den ibarra hiri bilbean txertatzeko.<br>Gainera, herriko harresi zaharraren aztarnak aprobetxatu nahi dira jatorrizko trazaduraren memoria berreskuratzeko eta gaur egun ia antzemanezina den ondare arkitektonikoari balioa emateko. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | **atzealdearekin komunikatzea proposatzen da, bertan kirol jarduerak egin ahal izateko.** | |
| AIARALDEA | LAUDIO | 1 | **Lamuzako ‘gaztelua’ bidezidor sarearen ardaztzat hartuta birgaitzea** | **Lamuzako parkeko lanean kontuan hartu ez diren elementuak birgaitzea** | Arabako Foru Aldundiak inbertsio handia burutu du Lamuzako ondare multzoa osatzen duten eraikinak birgaitzeko, baina gabezia garrantzitsua dario egindako lan eskergari. Gabezia horri heldu beharko litzaioke dagoeneko eginda dauden lanak zeharo biribiltzeko: ondare multzoaren talaia edo begiratokia leheneratzeko eta amaitzeko lanak, talaia hori eta parke osoa, Lamuzatik Ugarteraino, eta Ugartetik Arraño mendiraino doazen ibiltoki eta ibilbideen sarearen ardaztzat hartuta. Horretarako, talaiaren eraikina birgaitu beharko litzateke, bai eta parkea osatzen duten bideak eta ibilbideak hobetu eta seinaleztatu beharko lirateke, bai ardatz nagusia, bai alboko muinotik gora doazen ibilbide paraleloak, guztiak ere multzoaren talaia nagusian batzen direla («Arrañoko gaztelua» esaten diote tokiari, beste garai batean dorre almenadun txiki bat baitzuen). Egia esatera, talaia edo «gaztelu» hori 100 metro koadrotik beherako eremu txikia da, baina bidezidorren eta ibiltokien sistemaren ardatza izan beharko luke, inguruaz eta herriaz gozatzeko begiratoki bikaina delako.<br>Jarduketa batzuk egin dira eraikinean, herritarren auzolanean egindakoak udalarekin elkarlanean, eta udalak berak beste jarduketa batzuk gauzatu ditu. Beraz, argi dago herritarrek interesa eta elkarlanean aritzeko asmoa dutela, baina arazoa da eraikinaren eta lursailen jabetza Arabako Foru Aldundiarena dela eta, beraz, ekonomia eta lege arloetako udal teknikariek eragozpenak adierazi dituzte udalak inbertsio gehiago egin ditzan. Bitxia da gaur egun indarrean dagoen Lamuzako Multzoa Babesteko Plan Berezian jasota dauden elementuak inbertsio planean jaso ez izana. |

**2. KATEGORIA:**

| KUADRILLA | UDALERRIA | KAT. | PROIEKTUA | HELBURUA | AZALPENA |
|---|---|---|---|---|---|
| AÑANA | ZAMBRANA | 2 | **Garbitokia eta ingurua berreskuratzea** | Zambranako herriaren ondarea berreskuratzea, historia, turismoa eta abar sustatzeko | Garbitoki zaharra lehengo egituraren arabera lehengoratzea (teilatu eta guzti) Gaur egun, garbitegiko aska zaharrak baino ez dirau |
| ARABAKO ERRIOXA | LAPUEBLA DE LABARCA | 2 | **Lapuebla de Labarcako hainbat jolasgune estaltzea** | Neska mutilentzat egokiak diren eremu babestuak sortzea | Eguneroko beharrei erantzuteko eta haurrak eguraldi txarretik babesteko, udalerriko hainbat eremu estaltzea proposatzen da. Alde batetik, Jose Antonio Agirre parkean dagoen jolasgunea estaltzea. Garrantzitsu deritzogu jarduketa horri, udalaren titulartasuneko parke bakarra delako. Horrela, zabuak-eta babestuko genituzke eguraldi txarretik, haien bizitza baliagarria luzatu eta jolasteko gune erakargarriagoa eta seguruagoa sortuko genuke. Bestalde, Tejeria kaleko 1. zenbakian dagoen plaza estaltzea proposatzen da. Plaza oso jendetsua da, haurrak ez ezik, udalerriko biztanle ugari ibiltzen baita bertan. Pergola edo karpa bat erabiliz estaliz gero, han egoteko eta jolasteko eremu erakargarri eta atsegina sortuko litzateke, dibertimendua eta jolas aktiboa bultzatzen duten itzalpeko tokiz horniturik. Bi espazio horiek, giro eroso eta babestua eskainiko luketenez, jolas aktiboa eta sozializazioa sustatuko lukete haurren artean, baita baldintza klimatiko txarretan ere. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| GORBEIALDEA | ARRATZUA-UBARRUNDIA (Zurbao) | 2 | **Zurbaoko Otazu jauregiko putzu artesiarra birgaitzea** | **Putzu artesiarra eta ingurua berreskuratzea, aire zabaleko jarduerak egiteko** | Harrizko erreten bati lotuta eta harlanduz eginda dagoen putzu artesiarra berreskuratzea, azpiegitura bakana baita inguru horretan. Zurbaoko Otazu jauregiaren barruan dagoen antzinako ur putzu baten gaineko jarduketa da. Jauregi hori Arratzua-Ubarrundia udalerrian dago. XVII. mendeko eraikina dugu jauregia, landa jauregi barrokoaren tipologiari dagokiona, eta monumentu kategoriarekin katalogatuta dago. Jarduketaren helburua da, alde batetik, putzua eta erretena berreskuratzea haien balio arkitektonikoagatik eta, bestetik, putzu horrek ematen duen ur onaren hornidura baliatzea, zenbait jardueratan erabiltzeko. Putzu hori eta ingurune hurbila berreskuratuz gero, aire zabaleko kultura ekitaldiak egin litezke adin guztietako herritarrentzat. |
| AÑANA | ERRIBERAGOITIA (POBES-HEREÑA) | 2 | **Erroten bidezidorra** | **Mendi ibiliak egiteko ibilbidea sortzea, ondare eta natura intereseko tokiak elkarri lotuta.** | Bidezidorra Pobesetik Hereñara joango da, Baia ibaiaren ibilbideari jarraituz, lehendik dauden bideak aprobetxatuz esku hartzea minimizatzeko eta ingurune naturalari balioa emateko. Ibilbidetik barrena, birgaitutako ondare intereseko tokiak lotuko dira (Mimbredoko errota eta Hereñako errota). |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| AÑANA | LANTARÓN (BERGONDA ) | 2 | **Bergondako bide berdea** | **Ohitura osasungarriak eta bide berdearen bidezko loturak sustatzea gertuko herrien artean** | Bergondan ez daukagu bide berderik inguruko herrietara joateko, hala nola Larrazubira edo Espejora. Horren ondorioz, biztanleen eta turisten jolas eta kirol jarduerak arriskutsuak dira, errepidetik barrena joatera behartuta daudelako.<br>Orain arte egindako bide berdeek ibilbide guztietatik kanpo utzi dituzte Bergonda eta Larrazubi, eta Sobrón herria guztiz isolaturik Araba barruan; horregatik, proiektu onuragarria litzatekeela uste dugu. Esan beharra dago inguruko adintsuek gogoan dutela bide bat bazegoela Omecillo eta Ebro ibaien ertzetan eta ganadua ibiltzen zela bide horretatik, baina gaur egun desagerturik dago bide hori.<br>Helburu nagusia inguruko herriak bide lau samar batetik lotzea izango litzateke. Bide hori erabiliz, adinekoak paseoan ibil litezke, baita okindegira, supermerkatura edo inguruko bankura (Espejo) hurbildu ere, eta gazteek hainbat kirol jardueratan aritzea izango lukete. Inguru horretan bizi diren nerabe asko isolaturik geratzen dira garraio motorduna lortzen ez badute, ez baitute arriskurik gabe mugitzeko erraztasunik. Izan ere, lineako autobusen zerbitzua bertan behera geratu zen herrietako bat da Bergonda. Gure ustez, proiektu hau lehentasunezkoa da bizilagunen ongizatea sustatzeko, ohitura osasungarriak hobetuz eta ibilgailu motordunen erabilera murriztuz. Era berean, bide berdeekiko loturak familia eta kirol turismoa indartuko luke inguru horretan. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| AÑANA | BERANTEVIL LA (MIJANCAS) | 2 | **Telefoniako errepikagail ua** | **Telefono mugikorrek estaldura izatea** | Telefoniako errepikagailu bat jartzea leku egokiren batean, Mijancasek eta Riorrojo ibaiaren haranaren inguruko gainerako herriek deiak jaso eta egin ahal izateko. Horrela, medikuek deitu ahalko digute, gure gazteak kontratatu ahal izango dituzte, SMS bidezko eragiketak egin ahalko ditugu linean eta, oro har, lurraldearen gainerakoak daukan aukeraren antzekoa izan ahalko genuke. |
| GORBEIALDEA | ARRATZUA-UBARRUNDI A | 2 | **Vasco-Navarro trenbide zaharraren bide berdean esku hartzea Retanako eta Urbinako geltokien artean** | **Asfaltatzen jarraitzea Urbinaraino** | Bide berde hori interesgarria izango litzateke Goiaingo industrialdeko langileentzat, zoladura hobetuta (asfaltatzea), mota guztietako bizikletak erabiltzeko modua emanda eta bizikleta garraiobide gisa erabil dadin sustatuta. |
| ARABAKO MENDIALDEA | BERNEDO | 2 | **Bernedoko sarrera nagusia egokitzea** | **Herriko sarrera nagusia ikusaraztea eta egokitzea, aisialdirako gune bat sorturik** | Bernedoko sarrera nagusian, aisialdiko gune bat sortzea, eremuari balioa emateko, eta bizilagunentzako nahiz bisitarientzako gune bat sortzeko, lorategiz, haurrentzako jolasez, iturriz, bolatokiz, itzala eta babesa emateko zuhaitzez eta abarrez hornitua. Horrela, haurrak eta helduak elkartzeko gunea sortuko litzateke, eta bide batez, Bernedoko sarrera nagusia berregokituko litzateke, ikusgarritasuna eman eta turistentzat elementu erakargarria izan dadin. Udalaren jabetzako lurzatiak (7-267; 7-268) |
| AÑANA | GAUBEA | 2 | **Estulizko gaztelua sendotzea eta balioan jartzea** | **Estulizko gaztelua sendotzea eta balioan jartzea** | 2025ean ETA ONDOKO URTEETAN EGIN BEHARREKO LANAK<br>Jarraian, zenbait profesionalek (arkeologoak, arkitektoak eta aparejadoreak) eta enpresek 2025ean eta 2026an egin beharreko lanak azalduko ditugu.<br>- Gazteluko dorreko harrizko fabrikak sendotzea, hegoaldeko harresiaren horma atala sendotzea, irisgarritasuna hobetzea (pasabideak, eskailerak, |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | eskudelak...) eta gazteluari balioa ematea. |
| ARABAKO LAUTADA | IRURAIZ-GAUNA | 2 | **Bide berdearen ondoan, aisialdirako gune bat sortzea Erentxunen** | **Aisialdiko gunea sortzea, bai Erentxungo bizilagunentzat, bai bide berdea erabiltzen dutenentzat. Helburua da bide berdea geldiune batez hornitzea Arabako Lautadaren erdian, Gasteiz eta Mendialdearen artean.** | Landaredia garbitzea, belar sastrakak kentzea eta inausketak egitea, ingurune osoari argia emateko helburuz. Kargatzeko kaiaren eta Vasco-Navarro trenbide zaharraren baztergunearen aztarnei balioa nabarmentzea. Altzariak eta ekipamendua instalatzea, aisialdiko gune berria eratu ahal izateko. Bai eta bizikletak konpontzeko materialaz eta haurrentzako jolaslekuren batez hornitzeko ere. |
| ARABAKO MENDIALDEA | ARRAIA-MAEZTU | 2 | **MAEZTUKO ISAAC PUENTE PLAZA BIRMOLDATZEA** | **Isaac Puente plaza birmoldatzea belaunaldien arteko ikuspegia duen kultur eta kirol eremu bat sortzeko. Aire zabaleko espazio bat egokitzea, adin guztietako jarduerak egin ahal izateko. Herria gune batez hornitzea, eskolako jarduerak eta udalaren edo administrazio batzarraren jarduerak egin ahal izateko. Kirol ekipamenduren bat egokitzea eta mugikortasun urria duen adineko jendearentzat moldatutako altzariak instalatzea.** | Anfiteatro naturalizatu bat sortzea, balio anitzeko kultur eremu bat eratzeko, emanaldiak, antzerkiak, ekitaldiak... antolatzeko helburuz.<br>Plaza berriro urbanizatu zoladura berria jarrita eta berdegunez hornituta, baita altzari berriak eta egokiak jarrita ere. Lan hori Maeztuko landa zentroaren eta belaunaldien arteko jarduerak egiten diren lokal baten ondoan egitea proposatzen da, eta aire zabaleko jarduerak egiteko balioko luke. |
| AIARALDEA | OKONDO | 2 | **Urisandi bidea egokitzea** | **Bide hori egokituz gero, eraztuna itxiko litzateke herritarrak paseoan ibili ahal izateko eta, horrela, udalerrian jarduera fisikoa sustatzeko. Gainera, Untzabetxe** | Gaur egun, bidea itxita dago. Bidearen zati bat amildu da, eta beste aldean, luizi baten eraginez, bidea buxatu da eta ezinezkoa da handik paseatzea. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | **auzoa zuzenean lotuko litzateke lantegiekin eta udaletxearekin, eta segurtasuna handituko litzateke; bada, gaur egun oinez joan nahi badugu, errepidetik joan behar da.** | |
| AÑANA | BERANTEVILLA (SANTA CRUZ DEL FIERRO) | 2 | **Abiadura kontrolatzeko gailuak instalatzea A3126 errepidean** | **Bide segurtasuna handitzea A3126 foru errepidean, Santa Cruz del Fierro parean igarotzean** | Santa Cruz del Fierro Tokiko Erakunde Txikitik igarotzen den A3126 errepidea (32. KP) Zambranatik Urizaharrera iristeko erabili ohi da, eta bidea hainbat gune turistikotatik igarotzen da, hala nola Portilla/Zabalateko gaztelutik, Ozioko gaztelutik eta Berganzoko Uraren Ibilbidetik, bai eta ehiza barrutitik barrena.<br>Errepide horrek zirkulazio dentsitate handia du, eta, autoek, herrigunean sartzerakoan ez dute abiadura moteltzen, nahiz eta seinaleztapen bertikala eta horizontala egon, 50 km/h-ko abiadura gainditzeko debekua adierazita.<br>Istripuak gertatzeko arrisku handi-handia dago, Santa Cruz del Fierrotik Portillako gaztelura igotzen diren pertsonak eta bertakoak abiadura handian doazen ibilgailuekin batera suertatzen direlako. Horregatik, aipatutako tartean edo Zambranatik Berganzoraino doan A-3126 errepideak zeharkatzen dituen herrigune guztietan asto bizkarrak edo abiadura moteltzeko beste edozein sistema instalatzeko proposamena egiten da. |
| ARABAKO LAUTADA | | 2 | **We are chidren at the sun** | **Ospitalez kanpoko jarduketa buruzko gaixotasunik duten neska-mutilentzat** | Gurasoei prestakuntza eskaintzea. Aisialdiko beharrak asetzea. Haur horientzako eskolaz kanpoko laguntza. Pertsonen autoestimua handitzea laguntza psikologiko eta psikiatrikoaren bidez. Jarraipen medikoari laguntzea, eguneroko txostenen bidez. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| AIARALDEA | ARTZINIEGA | 2 | **Artziniegako Erlojuaren Dorreko erlojuak** | **Artziniegako Erlojuaren Dorreko erlojuak zaharberritzea eta martxan jartzea** | Artziniegako «Erlojuaren Dorrea» izenekoa udal frontoiaren eraikinaren ondoko dorrea da. Jatorriz, eraikin exentua izan zen, Artziniegako hainbat zerbitzu eta ekipamendutan, frontoiaren eraikuntzaren bultzatzaile izan zen Eugenio Garaik 1893an eraiki zuen harrizko frontoi zaharraren hormaren erremate gisa. 1993an, Artziniegako Udalak eraikina zaharberritzeko proiektu bat landu zuen, 4 milioi pezetako kostuarekin (3,4 milioi jarri zituen Arabako Foru Aldundiak 1992an emandako dirulaguntzaren bidez), baina orduan ez zen aintzat hartu konektatuta dauden bi erlojuen funtzionamendu mekanismoa martxan jartzea; erloju horiek higiezinaren hiru fatxadetatik bi okupatzen dituzte. Gaur egun, dorreak ikusgarritasuna irabazi du; izan ere, 2024an, Artziniegako I. Horma-irudi eta Fatxada Lehiaketa irabazi zuen horma-irudia margotu zen fatxada nagusian, «Engranajes del tiempo/Denboraren erroteria» izeneko lanarekin, erlojuak gai nagusi direla. Hori dela eta, herritar askok pentsatzen dute hainbat hamarkadatan geldirik egon den erloju sistema hori berriro martxan jartzeko garaia iritsi dela. Egia esatera, egungo horma irudia margotuta duen dorrea Txerra Ortega muralista madrildarraren marrazkiari argazkiak ateratzeko aukerarik galtzen ez duten ikusnahien erakargarri bihurtu da. Gainera, Garai plazan dagoen eraikin batez ari gara, familiak seme-alabekin edo adinekoekin elkartzen diren leku batez. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| GORBEIALDEA | ZIGOITIA | 2 | **Gorbeialdeko eskoletara joateko bide segurua sortzea** | **Eskolara joateko bide segurua sortzea Gorbeialdeko landa eremuan** | Gorbeialdeko eskoletara joateko 3 kilometroko eskolako bide segurua sortzea, familiak eta ikasleak oinez, bizikletaz edo patinetez modu seguruan joan ahal izateko eskolara.<br>Gaur egun, kilometro batera bizi diren pertsonak ere ezin dira modu seguruan joan eskolara, Gorbeia eskolaren kasuan behintzat, eta horrek 1 eta 3 km arteko joan-etorriak egitera behartzen ditu familiak egunero-egunero.<br>Familia batzuek ezin dute garraioa baliatu, haien etxebizitza 2 km baino distantzia laburragora dagoelako; beraz, eskolara oinez joateko aukera dutela ondorioztatu behar da. Bidea, ordea, oso arriskutsua da, bazterbiderik gabeko errepide batetik joan behar baita ikastetxera.<br>Jarduketa hau guztiz guztiz onuragarria izango litzateke bai Gopegiko Gorbeia eskolako, Murgiako Oroko Ama Birjinako eta Paules ikastetxeko, Legutio eskolako eta Duranako Ikasbide ikastetxeko hezkuntza komunitatearentzat, bai Gorbeialdeko biztanle guztientzat ere, herrien artean modu seguruan mugitzeko modua izango bailukete. |
| ARABAKO ERRIOXA | GUARDIA | 2 | **Udako udal igerilekuetan efizientzia eta irisgarritasuna hobetzea** | **Instalazioak egokitzea ura gal ez dadin eta igerilekuko ontzirako irisgarritasuna hobetzea** | Udako udal igerilekuek hainbat hobekuntza behar dituzte irisgarritasuna hobetzeko eta ura aurrezteko. Honako hau proposatzen da:<br>- Igerileku handiko ontzira sartzeko arrapala bat egitea, mugikortasun urriko pertsonak eroso sar daitezen.<br>- Soropil osoa altxatu eta zuhaitzen adarrak moztu, ahalik eta nibelatuen uzteko eta soropil berria jartzea.<br>- Ura aurreztea: 2 jarduketa proposatzen dira: Araztegiraino doan kanalizazioaren instalazio osoa aldatzea, ur-ihesak saihesteko, eta ura berreskuratzeko instalazio bat egitea, berriren berri egin ziren zurrusta jolasen ura berriro erabili ahal izateko.<br>- Eguzkitako gehiago jartzea hondartzan. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ARABAKO ERRIOXA | GUARDIA | 2 | **Asako gazteluaren balioa nabarmentzea** | **Ingurua txukundu, informazio panelak jarri eta Mantibleko zubi zaharberrituarekin lotzea.** | Erdi Aroko gaztelu hori Lasernan dago (Guardia), baina elementuaren izen historikoa Asako gaztelua da. |

**Kuadrillen parte hartzea**

**1. KATEGORIA**

| KUADRILLA | PROIEKTUAK |
|---|---|
| ARABAKO LAUTADA | • **Oinezkoentzako pasabidea A-3140 errepidearen gainean, Erromatarren bidean (Done Jakue bidea, Dulantzin).** |
| AIARA | • **Luiaondoko frontoiaren estalkia aldatzea eta eguzki plakak jartzea**<br>• **Lamuzako 'gaztelua' bidezidor sarearen ardaztzat birgaitzea** |
| AÑANA | |
| ARABAKO ERRIOXA | |
| GORBEIALDEA | • **Legutioko udalerriaren ekialdeko erronda bidea urbanizatzea** |
| MENDIALDEA | |

**2. KATEGORIA**

| KUADRILLA | PROIEKTUAK |
|---|---|
| ARABAKO LAUTADA | • **Bide berdearen ondoan, aisialdirako gune bat sortzea Erentxunen**<br>• **We are chidren at the sun** |
| AIARA | • **Urisandi bidea egokitzea**<br>• **Artziniegako dorreko erlojuak** |
| AÑANA | • **Garbitokia eta ingurua berreskuratzea**<br>• **Erroten bidezidorra**<br>• **Bergondako bide berdea**<br>• **Telefoniako errepikagailua**<br>• **Estulizko gaztelua sendotzea eta balioan jartzea**<br>• **Abiadura kontrolatzeko gailuak instalatzea A3126 errepidean** |

| | |
|---|---|
| ARABAKO ERRIOXA | • **Lapuebla de Labarcako hainbat jolasgune estaltzea**<br>• **Udako udal igerilekuetan efizientzia eta irisgarritasuna hobetzea**<br>• **Asako gazteluaren balioa nabarmentzea** |
| GORBEIALDEA | • **Zurbaoko Otazu jauregiko putzu artesiarra birgaitzea**<br>• **Vasco-Navarro trenbide zaharraren bide berdean esku hartzea Retanako eta Urbinako geltokien artean**<br>• **Gorbeialdeko eskoletara joateko bide segurua sortzea** |
| MENDIALDEA | • **Bernedoko sarrera nagusia egokitzea**<br>• **Maeztuko Isaac Puente plaza birmoldatzea** |

## 3. FASEA. Herritarren proposamenen azterketa

**Epea: 2025eko uztailaren 28tik irailaren 22ra**

**Emaitzak:**

**<u>Hautatu diren proiektuak:</u>**

***1. KATEGORIA / CATEGORIA 1:***

| UDALERRIA / MUNICIPIO | *PROIEKTUA* / PROYECTO |
|---|---|
| AIARA | *Luiaondoko frontoiaren estalkia aldatzea eta eguzki plakak jartzea*<br>Sustitución de cubierta y colocación de placas solares en el frontón en Luiaondo |
| LAUDIO | *Lamuzako 'gaztelua' bidezidor sarearen ardaztzat hartuta birgaitzea*<br>Rehabilitación del Castillo de Lamuza como centro de la red de senderos |
| LEGUTIO | *Legutioko udalerriaren ekialdeko erronda bidea urbanizatzea* Urbanización del paseo de ronda al este del municipio de Legutio |

***2. KATEGORIA / CATEGORIA 2:***

| KUADRILLA / CUADRILLA | UDALERRIA / MUNICIPIO | PROIEKTUA | *PROYECTO* |
|---|---|---|---|
| AIARALDEA | ARTZINIEGA | *Artziniegako dorreko erlojuak*<br>Relojes de la torre de Artziniega | |
| AÑANA | ZAMBRANA | *Garbitokia eta ingurua berreskuratzea*<br>Recuperación de lavadero y su entorno | |
| AÑANA | ERRIBERAGOITIA (POBES-HEREÑA) | *Erroten bidezidorra*<br>Senda de los molinos | |
| AÑANA | LANTARÓN (BERGONDA) | *Bergondako bide berdea*<br>Vía verde Bergüenda | |
| AÑANA | GAUBEA | *Estulizko gaztelua sendotzea eta balioan jartzea*<br>Consolidación de la ruina y puesta en valor del castillo de Astúlez | |
| GORBEIALDEA | ARRATZUA-UBARRUNDIA (Zurbao) | *Zurbaoko Otazu jauregiko putzu artesiarra birgaitzea*<br>Rehabilitación pozo artesiano palacio Otazu en Zurbano | |
| GORBEIALDEA | ARRATZUA-UBARRUNDIA | *Vasco-Navarro trenbide zaharraren bide berdean esku hartzea Retanako eta Urbinako geltokien artean*<br>Intervención en la vía verde del antiguo ferrocarril Vasco-Navarro entre estación de Retana y Urbina | |
| ARABAKO LAUTADA | IRURAIZ-GAUNA | *Bide berdearen ondoan, aisialdirako gune bat sortzea Erentxunen*<br>Creación de una zona de esparcimiento junto a la vía verde en Erentxun | |

| | | |
|---|---|---|
| ARABAKO MENDIALDEA | BERNEDO | *Bernedoko sarrera nagusia egokitzea*<br>Acondicionamiento entrada principal de Bernedo |
| ARABAKO MENDIALDEA | ARRAIA-MAEZTU | *Maeztuko Isaac Puente plaza birmoldatzea*<br>MAEZTUKO ISAAC PUENTE PLAZA BIRMOLDATZEA |
| ARABAKO ERRIOXA | LAPUEBLA DE LABARCA | *Lapuebla de Labarcako hainbat jolasgune estaltzea*<br>Cubrir varias zonas de juego en Lapuebla de Labarca |
| ARABAKO ERRIOXA | GUARDIA | *Udako udal igerilekuetan efzientzia eta irisgarritasuna hobetzea*<br>Mejoras de eficiencia y accesibilidad en piscinas municipales de verano |
| ARABAKO ERRIOXA | GUARDIA | *Asako gazteluaren balioa nabarmentzea*<br>Puesta en valor del Castillo de Assa |

**Sail eskudunek baztertutako proiektuak**

| KUADRILLA | UDALERRIA | PROIEKTUA | SAILA | ARRAZOIA |
|---|---|---|---|---|
| ARABAKO LAUTADA | ALEGRÍA-DULANTZI | **Oinezkoentzako pasabidea A-3140 errepidearen gainean, Erromatarren bidean (Done Jakue bidea, Dulantzin).** | **Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saila** | *Bide hori egungo sareari dagokio, eta sarean gutxien ibiltzen direnetarikoa da. Bidearen erabilerak ez du justifikatzen inbertsio oso handia, aurrekontu parte hartzaileetan esleitutako aurrekontua baino askoz handiagoa.* |
| AÑANA | BERANTEVILLA (MIJANCAS) | **Telefoniako errepikagailua** | **Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila** | *Telekomunikazio azpiegituren arloko eskumena Eraldaketa Digitaleko eta Funtzio Publikoko Ministerioari eta telefonia mugikorreko enpresa operadoreei dagokie, ez Arabako Foru Aldundiari.* |
| AIARALDEA | OKONDO | **Urisandi bidea egokitzea** | **Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila** | *Proposamenaren bideragarritasunari eragiten dioten kanpoko baldintzatzaileak (hirugarrenei eragin diezaieketenak eta aplikatu beharreko arau esparrukoak)* |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| AÑANA | BERANTEVILLA (SANTA CRUZ DEL FIERRO) | **Abiadura kontrolatzeko gailuak instalatzea A3126 errepidean** | **Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila** | Santa Cruz del Fierro herrian, *abiadura moteltzeko elementuak instalatzea, hala nola asto bizkarrak edo oinezkoentzako goraguneak, ez da bideragarria, egun indarrean dauden araudi murrizketek mugatu egiten baitute halako elementuen instalazioa, besteak beste, zeharbidetzat hartzen diren errepide zatietan, baldin eta bi ertzetan espaloi garaiak badituzte. Esandako baldintzak ez dira betetzen hizpide darabilgun udalerrian.* |
| ARABAKO LAUTADA | | **We are chidren at the sun** | **Gizarte Politiken Saila** | *Udalerriko ikasleentzako edo haurrentzako arreta psikologikoa udaletatik edo Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailetik garatu beharko litzateke.* |
| GORBEIALDEA | ZIGOITIA | **Gorbeialdeko eskoletara joateko bide segurua sortzea** | **Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saila** | *Proposamen honetaz denaz bezainbatean, Zigoitiko Udalak hirigintza plangintzan jasota dagoen konponbidea garatzen ez duen bitartean eta udaleko bideetan zehar erabiltzaile guztientzako oinezkoen ibilbide segurua egokitzen ez den bitartean, aurkeztutako proposamena atzera bota behar da, Gopegiko Gorbeia Eskolari dagokionari erantzuna eman zaiolako; bidenabar, beharrezko dokumentazio teknikorik ez dagoen bitartean, Sail honek ezin du Gorbeialdeko Kuadrillako gainerako ikastetxeetan egin ditzakeen jarduketei eragingo dien balorazio orokorrik egin.* |

**2025eko urriaren 1eko komunikazioa**

## 4. FASEA. Proposamenen hautaketa - HERRI BOZKETA

**Epea: 2025eko irailaren 23tik urriaren 24ra**

**Jasotako botoen kopurua:**

**2026ko AURREKONTU PARTE HARTZAILEETAKO BOTOAK**

| | 1. KATEGORIA |
|---|---|
| **(KOP.)** | **BOTOAK** |
| **1145** | **GUZTIRA** |
| **122** | **BALIOGABEAK** |
| **1023** | **BALIODUNAK GUZTIRA** |

**2026ko AURREKONTU PARTE HARTZAILEETAKO BOTOAK**

| | 2. KATEGORIA |
|---|---|
| **(KOP.)** | **BOTOAK** |
| **1887** | **GUZTIRA** |
| **132** | **BALIOGABEAK** |
| **1755** | **BALIODUNAK GUZTIRA** |

**2025eko irailaren 24ko komunikazioa**

https://prentsa.araba.eus/es/-/la-ciudadania-alavesa-ya-puede-votar-los-proyectos-finalistas-de-los-presupuestos-participativos-2026?p_l_back_url=%2Fes%2Fsearch%3Fq%3Dparticipativos%26delta%3D20%26start%3D2&p_l_back_url_title=B%C3%BAsqueda

(EUSKERAZ)
https://prentsa.araba.eus/eu/-/la-ciudadania-alavesa-ya-puede-votar-los-proyectos-finalistas-de-los-presupuestos-participativos-2026?p_l_back_url=/es/search?q=participativos&delta=20&start=2

## 5. FASEA. HERRI BOZKETAREN EMAITZAK

Ezarritakoaren arabera, parte hartzaileek PROIEKTU BAKAR BATEN ALDE bozkatzea izango dute.
1. KATEGORIAN, 2.000 biztanletik gorako udalerrietan erroldatutako pertsonek bakarrik eman dezakete botoa beren UDALERRIKO proiektu baten alde, eta 2. KATEGORIAN, berriz, beren KUADRILLAKO proiektu baten alde.
Pertsona bakoitzak (parte hartzeko aukeratzen duen bidea edozein dela ere) behin bakarrik parte hartu ahal izango du.

Eman diren botoak egiaztatzeko prozesua egin da, botoa eman duten pertsonak Arabako Lurralde Historikoan eta hautatutako proiektuari dagokion koadrilan erroldatuta daudela egiaztatzeko.

Halaber, egiaztatu da pertsona bakoitzak (aukeratutako partaidetza kanala edozein dela ere) behin bakarrik parte hartu duela.

**2025eko abenduaren 1eko komunikazioa**

https://prentsa.araba.eus/es/-/la-ciudadania-impulsa-7-proyectos-en-los-presupuestos-participativos-de-alava-2026?p_l_back_url=%2Fes%2Fsearch%3Fq%3Dparticipativos&p_l_back_url_title=B%C3%BAsqueda

**(euskaraz)**
https://prentsa.araba.eus/eu/-/la-ciudadania-impulsa-7-proyectos-en-los-presupuestos-participativos-de-alava-2026?p_l_back_url=/es/search?q=participativos

**Emaitzak:**

## 1. KATEGORIA:

### 2.000 biztanletik gorako udalerriak

| Udalerria | Proposamenak | Beharrezkoa den gutxieneko botoen kop. | Botoen kop. | Botoen BALIODUNEN kop. | Balorazioa |
|---|---|---|---|---|---|
| **LAUDIO** | **Lamuzako 'gaztelua' bidezidor sarearen ardaztzat birgaitzea** | **751** | **1121** | **1000** | **Proposamena hautatu da** |
| AIARA | Luiaondoko frontoiaren estalkia aldatzea eta eguzki plakak jartzea | 114 | 22 | 21 | Ez du gutxieneko babes quoruma gainditzen |
| LEGUTIO | Legutioko udalerriaren ekialdeko erronda bidea urbanizatzea | 84 | 2 | 2 | Ez du gutxieneko babes quoruma gainditzen |

## 2. KATEGORIA:
## 2.000 biztanletik beherako udalerriak

| Kuadrilla | Proposamenak | Beharrezkoa den gutxieneko botoen kop. | Botoen kop. | Botoen BALIODUNEN kop. | Balorazioa |
|---|---|---|---|---|---|
| **AIARALDEA** | **Artziniegako dorreko erlojuak** | **49** | **70** | **67** | **Proposamena hautatu da** |
| | | | | | |
| **AÑANA** | **Estulizko gaztelua sendotzea eta balioan jartzea** | **107** | **465** | **441** | **Proposamena hautatu da** |
| AÑANA | Garbitokia eta ingurua berreskuratzea | 107 | 142 | 130 | Proposamena hautatu da (2) (Aurrekontu erabilgarritasunari loturik) |
| AÑANA | Erroten bidezidorra | 107 | 126 | 118 | Proposamena hautatu da (3) (Aurrekontu erabilgarritasunari loturik) |
| AÑANA | Bergondako bide berdea | 107 | 111 | 92 | Ez du gutxieneko babes quoruma gainditzen |
| | | | | | |
| **GORBEIALDEA** | **Zurbaoko Otazu jauregiko putzu artesiarra birgaitzea** | **95** | **139** | **129** | **Proposamena hautatu da** |
| GORBEIALDEA | Vasco-Navarro trenbide zaharraren bide berdean esku hartzea Retanako eta Urbinako geltokien artean | 95 | 6 | 6 | Ez du gutxieneko babes quoruma gainditzen |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **ARABAKO LAUTADA** | **Bide berdearen ondoan, aisialdirako gune bat sortzea Erentxunen** | **80** | **118** | **111** | **Proposamena hautatu da** |
| | | | | | |
| **ARABAKO MENDIALDEA** | **Maeztuko Isaac Puente plaza birmoldatzea** | **55** | **87** | **85** | **Proposamena hautatu da** |
| ARABAKO MENDIALDEA | Bernedoko sarrera nagusia egokitzea | 55 | 18 | 17 | Ez du gutxieneko babes quoruma gainditzen |
| | | | | | |
| **ARABAKO ERRIOXA** | **Lapuebla de Labarcako hainbat jolasgune estaltzea** | **135** | **425** | **384** | **Proposamena hautatu da** |
| ARABAKO ERRIOXA | Udako udal igerilekuetan efizientzia eta irisgarritasuna hobetzea | 135 | 172 | 169 | Proposamena hautatu da (2) (Aurrekontu erabilgarritasunari loturik) |
| ARABAKO ERRIOXA | Asako gazteluaren balioa nabarmentzea | 135 | 8 | 6 | Ez du gutxieneko babes quoruma gainditzen |

## 6. FASEA.

**Kontuen errendapenaren data:** ***2026ko otsailaren 9an***

**Kontuen errendapenaren emaitzak:**

Azkenik zehaztu den aurrekontua 2026ko aurrekontu parte hartzaileetan, ezarritako Erregelamenduan eta diru sarreren guztizko aurrekontuaren eta AFAri ez dagozkion gastuen arteko proposamen aritmetikoaren ziozko berezko aurrekontuaren % 0,45eko koefizientean oinarrituta, **934.612 eurokoa** izan da.

**1. KATEGORIARI** dagokion proiektu onartuari dagokionez, 200.000 euroko zenbatekoa esleitu zaio eskabidean aurkeztu zen proposamena garatzeko.

- Laudioko udalerrian, **LAMUZAKO GAZTELUA BIDEZIDORREN SAREAREN ARDAZTZAT BIRGAITZEA** proposatzen duen proiektuari doakionez, hautatu den proiektuaren xedea Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektu horri lotutako 200.000 euroko zenbatekoa **ARABAKO FORU ALDUNDIKO** dagokion sailari eskualdatuko zaio, eta sail horrek izango ditu jarduera horren gaineko eskumenak.

**2. KATEGORIARI** dagozkion proiektu onartuei gagozkiela, 2. KATEGORIAN hautatutako proiektuetarako aurrekontuari lotutako partida (607.497,80 €) 1. kategorian erabilgarri dagoen gainerakoa (127.114,20 €) erabiliz handitu da, eta onartutako proiektuak egikaritzeko, **734.612 €** banatuko dira guztira.

- AIARALDEKO KUADRILLAKO **ARTZINIEGAKO DORREKO ERLOJUEN** inguruko proiektuari doakionez, hautatu den proiektuaren xedea Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektuari lotutako 122.435 euroko zenbatekoa **ARTZINIEGAKO UDALARI** transferituko zaio, erakunde horrek baitu jarduketa horren inguruko eskumena.

- AÑANAKO KUADRILLAN dagoen **ESTULIZKO GAZTELUAREN AURRIAK FINKATZEA ETA BALIOA EMATEA** proposatzen duen proiektuari dagokionez, hautatu den proiektuaren xedez Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektuari lotutako 122.435 euroko zenbatekoa **GAUBEAKO UDALARI** transferituko zaio, erakunde horrek baitu jarduketa horren inguruko eskumena.

- GORBEIALDEKO KUADRILLAKO **ZURBAOKO OTAZU JAUREGIKO PUTZU ARTESIARRA BIRGAITZEA** ZURBAOKO OTAZU JAUREGIKO PUTZU ARTESIARRA BIRGAITZEA proposatzen duen proiektuari dagokionez, hautatu den proiektuaren xedez Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektuari lotutako 122.435 euroko zenbatekoa **ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALARI** transferituko zaio, erakunde horrek baitu jarduketa horren inguruko eskumena.

- ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLAN, **ERENTXUN PAREAN, BIDE BERDEAREN ONDOAN AISIALDIKO GUNEA SORTZEA** proposatzen duen proiektuari dagokionez, hautatu den proiektuaren xedez Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektuari lotutako 122.435 euroko zenbatekoa ARABAKO FORU ALDUNDIKO **EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILARI** transferituko zaio, erakunde horrek baitu jarduketa horren inguruko eskumena.

- ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAN, **MAEZTUKO ISAAC PUENTE PLAZA BIRMOLDATZEA** proposatzen duen proiektuari dagokionez, hautatu den proiektuaren xedez Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektuari lotutako 122.435 euroko zenbatekoa **ARRAIA-MAEZTUKO UDALARI** transferituko zaio, erakunde horrek baitu jarduketa horren inguruko eskumena.

- ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLAKO **LAPUEBLA DE LABARCAKO HAINBAT JOLASGUNE ESTALTZEA** proposatzen duen proiektuari dagokionez, hautatu den proiektuaren xedez Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Sailaren zuzeneko eskumena ez denez, proiektuari lotutako 122.435 euroko zenbatekoa **LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALARI**transferituko zaio, erakunde horrek baitu jarduketa horren inguruko eskumena.

**Hautatu diren proiektuak egikaritzeko behin betiko aurrekontua: 934.612 €**

1. KATEGORIAKO proiektua egikaritzeko aurrekontua: 200.000 €

2. KATEGORIAKO 6 proiektuak egikaritzeko aurrekontua: 734.612 €

## 7. FASEA. Ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak.

**Kontuak emateko data:** ***2026ko otsailaren 28an***

**Ebaluazioaren emaitzak:**

Arabako Foru Aldundiaren 2026ko Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesua ebaluatzeko, hainbat bilera egin dira hurrengo egun hauetan:

- 2026ko urtarrilaren 13an
- 20226ko otsailaren 4an
- 2026ko otsailaren 27an

Bileretan parte hartu dute:

- Berdintasun, Euskara eta Gobernantzako Foru Diputatua
- Euskara eta Gobernu Irekiaren Zuzendaria
- Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendaritzako teknikaria
- Diputatu Nagusiaren Saileko langileak

Positiboki baloratu da 2026ko Partaidetzazko Aurrekontuen prozesu berria, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK EGITEKO PARTAIDETZAZKO EREDUAREN GIDA PRAKTIKO berrian oinarrituta.

Horrela, nabarmen handitu da azkenean hautatutako herritarren proposamenen kopurua, eta proiektu horiek egiteko aurrekontua handitu egin da.

Halaber, hobetu beharreko beste alderdi batzuk eta datuen eguneratze batzuk hartu dira kontuan. Datu horiek Arabako Lurralde Historikoko 2027ko Aurrekontu Parte-hartzaileak egiteko eredu parte-hartzailearen gida praktikoaren edizio berrian jasoko dira, arabarrek zuzenean parte hartzeko tresna hori optimizatzeko helburuarekin, lurraldearen eta kuadrillen beharrak eta lehentasunak ezartzerakoan.